

---

# KEREXETA JAUNA JOAN YAKU

---

Dagonilla ren 4'gnean, Kerexeta Gallastegi tar Jaime abade ta idazle bikaiña il zan Elorrio'n. Izan be, euske-reak idazle ordezteziña galdu dau, eta benetan, gure elertia doluz jantzi da.

Kerexeta Jaunak gure aldizkari onetan lankide izanez gaiñera, euskal elerti bizitza yaukala ta nekegaitza izan dau bere larogei urteotan. Berrogei ta amar idazlan (liburuak) inguru dira, bere maisutasunak lekukotzat utzi dauskuzanak, gure eliz-barrutian sakabanatuak.

Bizkaieraz idazlerik onenatarikoa izan da, eta bere zelakotasunari buruz, beste idazlan bikaiñen artean, Euskal Biblia (Bizkaieraz)'k jakitun ipiñi ninduan, eskuetara etorri yatanean berak niri eskiñita.

Euskeraz lau Biblia biurtu izan dira: "Bible Saindua" bost emonalditan agertu zana 1.859 urtean asita. Lan bikain au, J. Duvoisin kapitanak Lapurdi'ko euskerara biurtua da, euskera errikoi ta ulerterrazaz. Lan au argitaratzeko eragille nekaeziña, Luis Luzien Bonaparte Printzea izan zan, euskereari zaletasun andia eutsana. Gero La Gran Enciclopedia Vasca k 1.972 urtean Biblia onen bigarren argitalpena egin eban. Gipuzkeraz aita Uriarte'k biurpen bat egin eban, eta Olabide S.J. k 1.958 urtean "Itun Zar eta Berria" gipuzkeraz be argitaratu eban. Eta Bizkai'ko euskeraz, noizbait, "Euskal Biblia (Bizkaieraz)" deritxana, Kerexeta tar Jaime abadeak biurtuta, 1.976 urtean agertu zan.

Lan erraldoi ta yaukal au naikoa da berez, idazle bat elertiaren gorengo maillara jasoteko. Itzela da Kerexeta Jaunak bere gain artu eban aalegiña lan luze, garrantzitsu, eta zeatz au egiteko „Bere orrialde ugarietan murgil-

tzen danak euskeraren mundu barri bat estalgetzen dau: errikoia, landua, aberatsa, eta era berean ulerterraza dan euskerarik zoragarriena, eta au nabarmenago agertzen da, "Batua" k euskereari egin dautsan kaltea bekalde-tzean (bardintzean).

Niketz zor andia dausat Kerexeta Jaunari, euskera ona, ederra, zer dan erakutsi daustalako. Zenbatu eziñe-ko ordu zoriontsuak jasan dodaz Biblia onen alor era-karkorrak ausnartzen eta gozatzen era berean, eten barik nire euskera obatur, eta arbasoek utzi dauskuen izkun-tza gero ta maiteago dodala.

Bai, gure elertia doluz jantziten da, eta neuk lez Kere-xeta Jauna ederresten dogunok, bere aldegitak erostari biurtzen gaitu. Baiña idazle andiak lez, atzean geratzen diran bere lanak, aren anditasunaren lekukoak betirako izango dira. Goian bego gure maisu ta adiskide jakin-tsua.

**Zubiri'tar Iñaki**



---

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**